

Ulises, James Joyce (III)

Ikus dezakezuen, bueltaka jarraitzen dut James Joyceren Ulisesekin. Egia esan, “dei-efektua” duen liburu bat da... behintzat, nire kasuan. Hau da, berdin dio esaten badut: “Ez dut ezer gehiagorik jakin nahi liburu honi buruz. Hortxe utziko dut”. Bada ez, nire burua liburura itzultzen da. Airean geratzen den zer edo zer dago. Gauza asko, egia esan... Badira atal batzuk, aurreragorako utzi edo berriro irakurri nahi dituzunak... Beti dago hobeto ulertu nahi duzun “zer edo zer”. Eta hala egiten duzunean, hots egiten duzu: “Kontxo...”.

Nire kasuan, bi atal horiek 14. eta 18. atalak dira. 18. atala, eleberriari amaiera ematen dion bakarrizketa ospetsua da. 14. atala, berriz, ospitale batean igarotzen da, Bloom bertara joana baita Purefoy andreaz galdezka, ume bat mundura ekarri behar du eta. Ikasle batzuk ere badaude, eta haien artean Buck Mulligan dago; Sthepen Dedalus ere beraiekin dago, asko edaten dute eta hitz era pitz ari dira.

Atal honetan estilo eta jargoi ezberdin asko daude. Eruditoen arabera, egile hauek imitatzen dira atal honetan: Salustio-Tacito, Mandeville, Elisabet-en garaiko kroniken estiloa, Milton, Taylor Hooker, Burton-Browne, Bunyan, Pepys-Evelyn, eta mota guztietako jargoiak eta mordoiloak: kaleko ingelesa, ingeles arrunta, beltz arrazakoen ingelesa, cockneyak, irlandera, jargoi gehiago... Baina —erudituek diotenek—, beste idazle batzuen estiloak ere imitatu edota karakterizatu egiten dira atal honetan, besteak beste: Gibbon, Goldsmith, Lamb, Dickens, De Quincey, Carlyle, Ruskin...

Valverde, 14. atal honen aurkezpenean, zera dio: “Itzulpenean pastichearen txistea galdu egiten da”. Eta gero, euskarazko bertsioari aplikatzekoa ote den zerbait gehitzen du: “[...] con todo, el capítulo no deja de tener interés para el lector hispano, incluso por los posibles paralelismos con la historia de la prosa española [...]”. Euskarazko bertsioan, paralelismo horien gakoa agian dialektalismoan bilatu beharko litzateke (konpobide benetan eraginkorra izango balitz, behintzat). Xabier Olarrak 14. atalari, esaterako, eman nahi izan dion “irtenbidea” hori dela uste dut, non erabiltzen baitira garai ezberdinetako euskararen hainbat euskalki, jatorrizko obraren “sintesi asimilagarri” bat sortu nahian edo.

Baina, noraino ote da balekoa “konponbide” hau? Ez ote da izango aurrerantz eginiko ihesaldi bat, Joyce-ren obraren benetako mamia omen

diren askotariko estiloak itzultzeak berekin dakartzan konplexutasuna eta itzulezintasuna nolabait saihesteko edota “makillatzeko”?

Gauza bat ziurra da: konplexutasun handiko zerbaiti buruz ari gara. Egiatan, ia-ia poesia itzultzea bezala da, baina errima baten, metrika baten eta abarren arabera egituraturiko poesia bat; izan ere, poesia kontzeptuala itzultzea ez dut esango erraza denik, baina erriman, metrikan eta mota guztietako kontzeptu eta figura erretorikoetan oinarritutako poesia estetiko hutsa itzultzea... hori izurra izurtzea da. Utopia eder bat.

Beharbada, hauxe izan daiteke irakurleoi atzerakoa eragin diezagukeen arrazoietakoa bat: momentu askotan ulertzen ez den zerbait irakurtzen ari garelako sentrazioa (edo ziurtasuna). Pentsa une batez norbaitek On Kixote edo Axularren Geroa hartu eta, ez dakit ba, mandarin-txinerara itzultzen duela. Noski, zer geratuko da liburuaz? On Kixoteren kasuan irudiak, abenturak, liburuaren alderdi “bistaragarriak” geratuko dira (Cervantesen ezinbesteko estiloa, gaztelera zaharra eta bere burua adierazteko modua galtzen diren bitartean). Eta Axularren Geroaren kasuan, zer geratuko litzateke? Transmititzeko irudi gutxi ditu, erlijio-idazkiak dira, sermoiak... Axularren estiloa “ezabatzen baduzu”, zer geratuko zaizu mandarin-txineran, japonieran edota... gure inguruko hizkuntzetan? Tira ba, frantsesaren, ingelesaren eta, oro har, Europako hizkuntzen kasuan, beti jo ahal izango duzu Axularren garaiko testu ugarietara laguntza bila, Axularren estilo erlijioso imitatzen saiatzeko, Axularren estiloa estu loturik baitago bera bizi izan zeneko garaiarekin (ahaztu gabe, gainera, Axular ez zela uharte bat, hau da, berak ere “imitatu egiten zituen” bere garaiko erlijio idazkiak).

Nolanahi ere, liburu korapilatsu baten aurrean gaude, dudarik gabe. James Joyceren Ulises liburuan sartzea ez da oso erraza. Bidean, gauza gehiegi galtzen dira. Eta, galtzen denari buruz ari garenez, gogoan izan Ulisesen euskarazko bertsiok oharrez betetako... 232 orri dituela!! Stuart Gilberten eskema eta Eolo episodioaren figura erretorikoen zerrenda barne. Itzela da, alegia. Itzela. Eta eskerrak oharrak jarri dituzten liburuaren bukaeran; bestela, ezinezkoa izango bailitzateke liburua irakurtzea. Oharrez jositako 232 orri!! Liburuaren bukaeran jarri ezik, liburu bat osorik argitaratu beharko zenuke... oharretarako bakar-bakarrik! Hain zuzen, holaxe egin omen dute beste bertsiok batzuetan.

Eta orain, goazen harira. Aspalditik neuzkan bi atal irakurtzeko: 14. atala eta 18. atala. Horiek irakurtzen hasten nintzen, baina berehala uzten nuen bertan behera saioa. Handik aste edo hilabete batzuetara, berriro saiatzen nintzen, baina emaitza berberarekin, harik eta egun batean —“eureka!”— irakurketan sartzea lortu nuen arte. Lehenik, 18. atala “erori zen”, liburuaren azken atala, hau da, Molly Bloomen bakarrizketa ospetsua. Azken atal honen irakurketa irekitzen zuen giltza bat zegoen. Ez dakit nola baina aurkitu egin nuen. Eta atal hau bukatu nuenean (hainbat egunetan; ez nuen jarraian irakurri), banekien denbora-kontua zela 14. atala ere “inbentarioari” gehitzea. Eta halaxe izan da.

14. atala, ziur aski, “hermetikoena” da. Euskarazko bertsioan erabilitako euskalkiaren erabileragatik eta absurdotik oso hurbil dauden esaldien kateamenduagatik izan daiteke, hasierako paragrafoak ulertezin bihurtzeraino. Baina, atalean sartu ahala, estiloa leundu egiten da eta azkenean atalean “sartzeko” aukera ematen dizun beste giltza bat topatzen duzu. Baina lehenengo bulkada korrika ateratzea da. Bestalde, hasierako euskalkiak bide ematen die irisgarriagoak diren beste euskalki batzuei eta beste estilo batzuei.

Dena dela, bi atal hauek irakurtzeak ez du esan nahi liburuaren gaineko ulerkuntza osoa eta erabatekoa badaukazula. Berez, ez nago ziur hori lor daitekeen jatorrizko liburuaren irakurketatik abiatu gabe eta horrelako irakurketa bat egin ahal izateko kultur ekipamendu jakin eta sendo batez horniturik egon gabe, zeinak, neurri jakin batean, berezkoa eta naturala ere izan behar behar duen.

Gauza batez ez dut dudarik: James Joyceren Ulises hortxe dago. Badirudi itsasargi baten antzekoa dela, eta irakurlea premiau egiten du “argira joatera”, jakinminez bakarrik bada ere (gizakiok, primate guztiak bezala, jakinmin handikoak gara).

Batzuen arabera, Ulisesen irakurketak eragiten duen beste efektu bat hauxe da: beste idazle askok erabilitako prosa “gatzik gabea” edo pobre samarra delako sentrazioa. Edozer dela ere, eta Ulises zenbateraino uler dezakegun alde batera utzita, beti murgil gaitezke nobelaren irakurketan, nahiz eta amarrugabeki izan, liburu honek estilo aldetik eskaintzen duen aberastasun itzelaz gozatzea (edo gozaten saiatzea) beste helbururik gabe.

Valverderen gaztelerazko bertsoan Xabier Olarraren bertsoan baino hobeto ulertzen al dira 14. eta 18. atalak, euskarazko bertsoak euskalkien erabileragatik ustez duen balio handiagoa alde batera utzita? Bada, litekeena da, ez dakit... Bi atal hauek poliki irakurri beharko nituzke berriro bai euskaraz bai gazteleraz, erabat ziur egoteko; baina, printzipioz, nik esango nuke baietz, bi atal horiek errazago irakurtzen direla gazteleraz euskaraz baino. Baina, kontuz, ez euren osotasunean, zatika baizik, zenbait momentutan baizik. Beharbada, hori izan daiteke Xabier Olarraren bertsoak ordaindu beharreko prezioa: ulergaitasun puntual bat; ez orokorra, ezta gutxiagorik ere, baina bai puntuala (14. eta 18. atalez ari naiz). Iritzi bat baino ez da, irakurle-iritzi bat. Ni euskalkietan eta Joyceren obran ez naiz aditua, ez naiz eruditoa... Hori ere, argi eta garbi gera bedi. Irakurle gisa mintzo naiz; liburuarekin izan dudana esperientzia pertsonalari buruz ari naiz.

Gaztetan euskal klasiko batzuk irakurri nituen, adituen laguntzaz: Axularren Geroa (Villasanteren bertsoan), Silvain Pouvreau, Tartas, Aita Fray Jose Antonio de Uriarte (zeinen polita haren Testamendu zar eta berria!), Bernat Dechepare... Edota modernoagoak: Peru Abarka, Txomin Agirre, Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, Lizardi (zeinen zaila!), Orixe (Euskaldunak poemarioa ere ez da bat ere samurra), e.a. Auspoak argitaratzen zituen liburuak ere gustora irakurtzen nituen garai batean, ahozko hizkeren musikaltasunagatik eta jatortasunagatik. Beraz, euskalki batean idatzitako testu batekin topo egiten badut, printzipioz ez naiz korrika ateratzen...

Nolabait ere, zenbait momentutan absurdo eta zentzugabe bihurtzen den prosa-efektu hau munduko bertso guztietan gertatzen dela pentsatzekoa da, besteak beste, jatorrizko obraren parte delako; horrek, hala ere, ez du esan nahi beste bertso batzuetan efektu “naturalagoa” lortu ezin izan dutenik, batez ere konplexutasun handiko zenbait momentutan, gehienbat estiloari eta imitazioei dagokienez.

Dena den, azken bi atal hauek irakurtzean, eta James Joyceren Ulises liburuaren irakurketa “errazten duten” gidaliburu labur baina eraginkor batzuei esker, liburua neure buruan “eraikitzen”, “osatzen” hasi naizela esan dezaket. Bai, liburua nire buruan forma hartzen hasi da. Eta orain, hurrengo urratsa eleberria berriz ere osorik irakurtzea da. Baina ondo atsedenduta egin nahi nuke hori, eguneroko lanak eragiten didan nekearen

eraginpean egon gabe, hau da, irakurketa honi berriro heltzeko une egokia aurkitu nahi dut; izan ere, Ulises hau erronka bat da, eta zenbat eta gehiago tematu, orduan eta “gehiago” nahi duzu.

Atal bakoitzean irakurriko duguna ulertzeko, ondo dago gida praktikoren bat erabiltzea. Ez da beharrezkoa gida luze, kilometrikoak erabiltzea. Valverderen bertsioak, esaterako, atal bakoitzaren laburpen bat dakar, oso erabilgarria aurrean daukagun atalaren irakurketan geure burua pixka bat zentratzeko. Gida horietara daramaten esteka asko daude Interneten; Wikipediarena ez dago gaizki eta ez da bat ere astuna¹.

Aurrerago gehiago sakondu nahi duzula Ulises eleberrian? Primeran. Ulises “liburu bat gehiago” bezala ziur aski irakurri ezin bada ere, bai ametitzen duela “asmo handirik gabeko” irakurketa bat; irakurri egin behar da pentsatuz ondo pasatu dezakegula, kontuari buelta gehiagorik eman gabe. Nire ustez, apaltasun pixka batez, eta zenbait pasarteren eta zenbait atalen irakurgarritasun eskasak eragindako nahasmenduzko uneetan egonarri pixka bat edukiz gero, Ulisesen euskarazko bertsio honek eskaintzen digun bidaiaren amaierara irits gaitezke... onik eta pozik.

Animo!

Jarraian, 14. atalaren laugarren paragrafoaren jatorrizko bertsioa transkribatzen dizuet. Eta horren segidan Xabier Olarraren bertsioa eta Valverderena, paragrafo berberarenak. Nire ustez, paragrafo honen irakurgarritasunari dagokionez, Valverderen bertsioa garaile ateratzen da, Xabier Olarrarena baino “ulerterrazagoa” izanik.

Berez nahiko hermetiko eta konplexua den egile bat eta paragrafo bat ulertzea oztopatzen duten forma dialektal arkaikoez baliatzea benetan ote zen beharrezkoa? Bakoitzak jakingo du galdera honi zintzotasunez zer erantzun eman. Dena den, forma dialektal arkaikoaren zailtasun erantsia alde batera utzita, nik Valverderen testua “naturalagoa” dela esango nuke, esaldien sekuentzia eta kateamendua naturaltasun handiagoz jarrai daiteke... Gainera, gakoa hori da: testua irakurtzen duzun bitartean, paragrafoa osatzen duten esaldiek ordena bati jarraitzen diotela sentitzea, esaldiak sintaktikoki uztartzen dituen zerbait egon badagoela, alegia.

¹ [https://es.wikipedia.org/wiki/Ulises_\(novela\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Ulises_(novela))

Ordena hori, esaldien arteko kateamendu oinarritzko hori da Xabier Olarraren bertsioan faltan botatzen dudana, 14. atal honi dagokionez (edo, hobeto esanda, 14. atal honetako paragrafo jakin batzuei dagokienez) eta, ziur aski, baita 18. atalari dagokionez ere, oro har.

Bestalde, jatorrizko bertsioan paragrafo hau ingeles modernoan idatzita dago. Zer dela-eta erabili da Lapurdiko dialekto zaharkitu moduko hori, estiloaren itzulpena egitera mugatu ordez? Joycek ingeles zaharra erabili ez badu, zergatik erabili da euskara zaharra euskarazko bertsioan? Testua aberasten al du ala pobretzen al du erabaki horrek? Zer ekarpen egiten du? Argitasuna dakar? Noski, galdetu ere galdetu genezake zer transmititzen duen jatorrizko bertsioaren laugarren paragrafo honek, zer transmititzen duen Olarraren bertsioan edota Valverdereanean, baldin eta merezi duen zerbait benetan transmititzen badu —edukiaren ikuspuntutik—. Izan ere, jatorrizko, euskarazko edota gaztelerazko testua irakurtzen duzu eta ematen du egileak kopa batzuk hartu zituela edota pitzatuta zegoela paragrafo hau (eta beste batzuk) idatzi zituenean...

Tira ba, norbaiten sentiberatasuna mindu badut, barkamena eskatzen dut. Edozelan ere, nahi duenak beti jo dezake *ninguneora* mendeku edo kontsolamendu bila, horrek beti laguntzen baitu frustrazio pertsonalak zein kolektiboak arintzen... Nitaz den bezainbatean, egon lasai: larru-azala aski gogortua daukat (irakasle onak izan ditut, batzuk motiboekin —antza— eta beste batzuk motiborik bat ere gabe —ziur—; eta, nola ez, diskriminatzaileak, harroputzak, prepotenteak, txiringitozaleak eta alderdiko karneta edukitzeari garrantzi handiegia ematen dioten mediokreak ahaztu gabe).

Azkenik, barkamena ere eskatzen dut ondoko paragrafoen transkribapenean erratatxoren bat oharkabean igaro izan balitzait (hiru alditan berrikusi ditut testuak, badaezpada ere). Ingelesezko bertsioan ez dut uste erratarik egongo denik, jatorrizko pdf-tik zuzenean kopiatu baitut.

Jatorrizko bertsioa (J.J.):

[...]

Universally that person's acumen is esteemed very little perceptive concerning whatsoever matters are being held as most profitable by mortals with sapience endowed to be studied who is ignorant of that which the most

in doctrine erudite and certainly by reason of that in them high mind's ornament deserving of veneration constantly maintain when by general consent they affirm that other circumstances being equal by no exterior splendour is the prosperity of a nation more efficaciously asserted than by the measure of how far forward may have progressed the tribute of its solicitude for that proliferent continuance which of evils the original if it be absent when fortunately present constitutes the certain sign of omnipotent nature's incorrupted benefaction. For who is there who anything of some significance has apprehended but is conscious that that exterior splendour may be the surface of a downwardtending lulent reality or on the contrary anyone so is there inilluminated as not to perceive that as no nature's boon can contend against the bounty of increase so it behoves every most just citizen to become the exhortator and admonisher of his semblables and to tremble lest what had in the past been by the nation excellently commenced might be in the future not with similar excellence accomplished if an inverecund habit shall have gradually traduced the honourable by ancestors transmitted customs to that thither of profundity that that one was audacious excessively who would have the hardihood to rise affirming that no more odious offence can for anyone be than to oblivious neglect to consign that evangel simultaneously command and promise which on all mortals with prophecy of abundance or with diminution's menace that exalted of reiteratedly procreating function ever irrevocably enjoined?

Euskarazko bertsoia (X.O.):

[...]

Universalqui haguiz erhotzat uqhan ohi da enthelegamendu hura zein mortal adimenduyaz goarniturico oren arras profitagarri eritziac diren gayez den becembatian ignorant den doctrina hartan dioitenaz çuhurrenec cein baitirade guertuqui euren enthelegamendu apain hura dela causa verenacinoaren merecient ethenic gabe sostengatu uqhan dutelaric eta aho batez affirmatu ecen berce circumstanciac verdinac içanic nacione baten aycinaciaren lekhoreco leinhuruya ez den efficacia handiagoz confirmacen nola neurtuz cembateranocoa den hayen diligenciaren tributuyaren aicinaciaren hedadura ugalciaeren ildo esportazale hartacoç cein baldin falta vada gayz gucien ethorqui içanic natura omnipolentearen onura

endecagabiaren ceinu cierto den valinetan present vada. Ceren nor da nolarebait significant içanic deus enthelegatu baina oharcen eztenic eci campoco loraldi distirant hori içan litaqueiela abismerat dohan realitatiaren açal ltulenta edo aitzitic ez oharceco baicen khamux denik eci ez denez naturaren benedicationeric ugalciaren oparotasunarequi lehiatzen ahal litaqueienic herritar zinço oroc behar luqueiela emana bere iduricoen ohartemaile eta exhortaçale içaitera eta beldur içaitera nacioniac iraganian excellenciaz hacia vetheguinçarre grado verdinaz conpli ez dadin valdin usadio ahalquegarri batec andega badetza gutica-gutica arbasoec gu baitharano hel eraci aztura ohoragarri haiec halaco grado ahalquegarriraino non sobera ausart lizaten sujetbat iarqui valedi affirmatuz eci ez litaqueiela hogen hinguigarriagoric ehorentzat ahanztura çabarrerat condemnacia baicen manamendu eta aldiverian promes evangelico hura ceinec mortal ororen abundanciaren profeciaz edo urritarzunaren mehachuyaz hala laudatu bait du populaciaren functione repicatuqui eta bethi-ere salbuespenic gabe hon iricia?

Gaztelerazko bertsoia (J.M.V.):

[...]

Universalmente se estima el acumen de aquella persona muy poco perceptivo referente a cualquier asunto considerado como más provechoso de estudiar por mortales dotados de sapiencia si ignora eso que es lo más alto en doctrina erudita y ciertamente por razón de ese elevado ornamento de la mente en ellos merecedor de veneración constantemente cuando por consentimiento general afirman que en igualdad de las demás circunstancias por ningún esplendor exterior se asevera más eficazmente la prosperidad de una nación que por la medida de hasta qué punto haya progresado el tributo de su solicitud hacia esa proliferante continuación que de los males es el original si está ausente y si afortunadamente presente constituye el signo seguro de la incorrupta benefacción de la omnipolente naturaleza. Pues ¿quién hay habiendo adquirido alguna moción de cualquier importancia que no sea consciente de que tal esplendor exterior puede ser la superficie de una realidad lutulenta con tendencia a bajar o recíprocamente quién puede haber tan poco iluminado como para no

percibir que puesto que ningún beneficio de la naturaleza puede rivalizar contra el beneficio de la multiplicación por tanto conviene a todo ciudadano justo convertirse en exhortador y amonestador de sus semejantes y temblar de miedo de que lo que en el pasado fue iniciado excelentemente por la nación pueda ser cumplido en el futuro sin análoga excelencia si hábitos inverecundos pervierten gradualmente las honorables costumbres legadas por los antepasados a tal nivel de bajeza que fuera excesivamente audaz quien tuviera el atrevimiento de levantarse a afirmar que no puede haber para nadie delito más odioso que consignar al descuido olvidadizo aquel evangélico mandato y a la vez promesa que a todos los mortales con profecía de abundancia o amenaza de mengua ha señalado irrevocablemente y para siempre esa sublime función reiteradamente propagativa?
